

# KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA / 2007ko azaroaren 30a / 231. zenbakia / 18. urtea

- **HERRIKO KONTUAK** Moilako eta Txankako lanak 05
- **KIROLA** 100 kilometro ergometroarekin 09
- **AIAKO BERRI** Gazteentzako lekua eztabaidagai 10
- **AIAKO LEIHOA** Aitor Hoyos 12
- **MOILA BAZTERRETIK** Garbiñe Manterola 29
- **HERRITARRA** Miren Zinkunegi 33



## Aiako II. Argazki Lehiaketako irudiak

Cehigarri berezia osatu dugu Aiako II. Argazki Lehiaketan saritu dituzten irudiekin. Goiko hauxe duzue sari nagusia jaso duena.

**AUTOAK AUKERA ONEAN**



**AIA ORIO**

Telefonoa: 943 13 04 38

*edukitegia*

**ANTILLA**

*justifikatzailea*

Alfonso Korta 2 - TEL. 943 83 20 00

**Pinturak ELKAR**

pintura eta paperatze lanak zoru leunketa

Abendaño industrialdea  
943 83 08 45 / 819 60 23 35  
ZARAUZ

**Klikladenda- Uma arropa**

*argine.*

www.lasoneL.com/argine  
Tel. 943 13 48 89

**2,5eko DESKONTUA FAMILIA UGARIEN TXARTELAREKIN**

**uranga**

auto zerbitzua



**Aliprox**

Huelin Garden Kalea 13-15  
ORIO  
943 83 38 75

**AMILIBIA**

ONTZIALAK, S. L.

biel portuaren proiektu eta instalazioak  
gotzariak lehiaketarako iruzun-entseak



Olaskoagaaga buzoa, 52  
34 943 83 08 29  
faxa 34 943 89 40 81  
amilibia@amilibia.com  
www.amilibia.com

*Dorronoro Denda*

196etik zure ondoan

**AUKERA HANDIAGOA FRUTATEGIAN**

Tel 943 83 09 37



**Carmen eta Txomin**

ARRANDEGIAR



943 83 05 37 / 943 83 27 47

**Gure Txoko**

Arriaga Kalea

**Goizeko**

KAFETEGIA

943 83 28 55

Aira Urbairu 33 bidea - ORIO  
Autobus parada ondoan

*Gabon*

TABERNA

plater konbinatuak pintxoak

Tfnoa: 943 83 06 03

**Galeria I**

Igo zaitoz haize berrietara!

943890416-677149932  
galerntorio@hotmail.com

**TANATORIO ZARAUZ**

EUROFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

\* Donostia eta probintziako ospitaleetan  
\* Aldiarako zerbitzua  
\* Belatorio gelak  
\* Koroak, eskelak, tramitazioak...

Araba kalea, 35 Zarauz

Tel: 943 83 49 37 / Fax: 943 83 48 41  
e-mail: harraspil@harraspil.net

**A&E**

The Academy of English

Justo kalea 3, Zarauz | Ibai Ondo pl. 8 Orrio

Tel. 943 00 42 44  
943 83 51 91

**ARKAITZ**

Taberna

Pintxoak, plater konbinatuak eta ogitarleko mundialak

ABESLABI KALEA, 1 | Tel: 943 83 16 57

**INDO**

Garraio frigorifikoa NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA



Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

# KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA

Kultur Etxea  
20810 ORIO  
943 83 15 27

karkara@karkara.com

**Editorea**

KARKARA taldea kultur elkarte

**Zuzendaria**

Ana G. de Txabarri

**Erredakzio burua**

Patxi Uranga

**Erredakzio taldea**Lore Berasaluze, Pat Cowie,  
Miren Etxebarria, Ana Iturain,  
Eneritz Odriozola eta  
Jabier Zabaleta**Aiako erredakzioa**

Eli Lasa eta Pat Cowie

**Publizitatea**

Pat Cowie

**Publizitatearen diseinua**

Patxi Uranga

**Testuen zuzenketa**Miren Etxebarria eta  
Jabier Zabaleta**Ale honetako laguntzaileak**Aiako Udala, Aitor Hoyos, Bixente  
Larrañaga *Xarpas* eta  
Jesus Rodriguez**Diseinua**

KARKARA taldea eta Goio Arana

**Banatzzaileak**Josu Lizarralde eta  
Itziar Aiestaran (Orio)  
Irene Aldai (Aia)**Inprimategia**

Gertu Koop. E. (Oñati)

**Lege gordailua** SS-346/90**ISSN** 1132-1105**Tirada** 3.200 aleKARKARAK ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen edota  
iritzien erantzukizunik.KARKARAN argitaratutakoa berreman  
daiteke, osorik edo zatika, baldin eta  
iturria aipatzen bada.

# Ondo pasa festak!

NIKOLASA TXIKIA

**1**  
Festak gainen ditugu  
ba al da gogua?  
pixkat desmadratzeko  
gorputz ta burua  
4-5 egun diranez  
horra kontsejua  
aprobetxatu eta  
bizi momentua

**2**  
Aurten ausentzia bat  
nahi det nabarmendu  
Dioni ez da izango  
betiko utzi gaitu  
orain kolesterola  
zenekin kaltetu  
hura bezain jatorrik  
ezteu ezagutu

**3**  
Bi txosna izango dira  
aurtengoan plazan  
hirugarren bat, berriz,  
taxitako hartan  
hobe jarri beharrik  
izango ez bazan  
baina bitartean  
gastua han intzan

**PUBLIZITATE PREZIOAK****IRAGARKIA ALERO JARRITA**

Modulu bat .....	12,00 €
Bi modulu .....	24,00 €
Hiru modulu .....	36,00 €
Lau modulu .....	48,00 €
Sei modulu .....	72,00 €
Zortzi modulu .....	96,00 €
Orrialde erdia .....	120,00 €
Orrialde osoa .....	204,00 €

**IRAGARKIA BEHIN JARRITA**

Modulu bat .....	16,00 €
Bi modulu .....	31,00 €
Hiru modulu .....	47,00 €
Lau modulu .....	64,00 €
Sei modulu .....	95,00 €
Zortzi modulu .....	127,00 €
Orrialde erdia .....	174,00 €
Orrialde osoa .....	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko Pat Cowierekin hitz egin (695 78 07 20) edo [publizitatea@karkara.com](mailto:publizitatea@karkara.com)  
Prezio hauei BEza gehituko zaie**LAGUNTZAILEAK**

Euzko Jaurlaritzak

Kultura Sailak  
diruz lagundutako  
hedabidea

## Itsasoko

### erromesen bideoa

Kaixo KARKARAKO irakurle guztioi. Ondo jakingo duzuen aurten abuztuan Done Jakue bidea egin zuten itsasoz herritar batzuek. Bidaia gutzia bideoan jasota geratu zen eta ordezkatzeko dudak *garmedia* ekoiztetxeak dokumental bat egiteko ardura bere gain hartu du. 35 orduko materiala dugu esku artean, baina gehiagoren beharrea aurkitzen gara. Hori dela eta eskera luzatu nahi genuke: gai horren gainean argazkirik, egunkarietako rekorderik, telebistatik grabaturiko zerbait, bideoarik... beno, gaiarekin zerikusirik duen edozer gauza baldin baduzue, jar zaitezte kontaktuan gurekin, arren, 600 41 28 91 telefonoan edota *garmedia@gmail.com* helbidean. Biziki eskertuko genizuke. Bideoak lan handia du oraindik bukatua egoteko, baina ahalik eta ondoen egingo dugu denak balentriaren lekuko izan zaitezten. Mila esker berriro ere!

URTZI GARMENDIA  
GARMEDIA AUDIOVISUALS

## Pasatzen ari zarete

Guk, Orioko gazteok, egunero gogor lanera joan behar izaten dugun bitartean, hortik ibiltzen zara kiroldegian, paseatzen edo zuk zerorrek jakingo duzu zertan, baina hemen audiodenak ez dugu zuk egindako ezerren fruiturik jaso eta zure komentarioek nazkatu egin gaituzte. Guk Orioren alde ezer egiten ez duen kanpotar bati ez diogu ezer demostratu beharrik eta gutxiago ezertarako laguntzarik eman nahi ez digun inori. Erre egiten gaitu zuk gure etorkizuna eta egunero bizitza erabakitzeko ahalmena izateak. Ez duzu ezer egiten, funtzionario baten soldata duzu eta herri honen nahiak ez dituzu burutu nahi. Ez dugu mertzenariorik nahi.

Izkierdo kanpora!

Eskutitz honen bitartez, baita ere, Jon Redondo alkatearen jarrera salatu nahi dugu, gure adierazpen eta propaganda askatasuna ukatzen ari baita behin eta berriz, gazteen hitza isildu nahian. Adibide bezala, azaroaren 23ko gauean jarri ziren pankartak hurrengo egunerako goizeko zortzietarako kenduta zituzten udaltzainek.

Gazteon hitza errespetatu, pasatzen ari zarete.

ORIOKO GAZTE ASANBLADA

## Ikastola Txurumuskikin

Ametsa Gaztelekuaren kudeaketaren esleipena dela-eta, Orioko Herri Ikastolak zera adierazi nahi du:

- Txurumuski Aisialdiko taldeak Ikastolarekin izan duen harremanagatik, elkarrekin egin duten elkarlan estuarengatik eta une oro agertu duten borondatezko jarreragatik, Ikastolaren babes eta atxikimendu guztia delala.

- Aisialdiko jardueretan, haur txikienetarik hasi eta gazteetaraino, Orioko neska-mutilekin egin duten lanak Ikastolako guraso eta irakasleen errekonozimendu osoa duela.

- Orioko haur eta gazteen errealitateari buruzko ezagutzarik handienetakoa Txurumuski Aisialdiko taldeak duela, bertako kideak errealitate horren parte zuzena baitira: hasieran ikasle gisa, eta ondoren begirale bezala.

- Orioko Herri Ikastola Kooperatiba Elkartearen antzera, herri ekimenetik (gazteen ekimenetik) sortutako taldea dela, irabazi asmorik gabea; bere interes bakarra Orioko haur eta gazteen aisialdia hobetzea duena, Orioren mesederako, herriaren onerako: beraz, herritarrek herriaren alde egiteko taldea dela.

- Afera honetan Orioko Herri Ikastola prest dagoela bere esku dagoen laguntza emateko, orain arte egin duen

bezala, bai Orioko Udaleri eta baita Txurumuski Aisialdi taldeari ere.

ORIOKO HERRI IKASTOLA  
(07-11-21EKO ARTEZKARITZA  
KONTSEILUAN ADOSTUA)

## Sinatu ezazu!

The Wall Street Journal-en azal dutako artikulua ondoen... erantzuna eskaintzen du Eusko Ikaskuntzak. Irakurri eta ados bazaude, zurea gehituko dugu beste milaka lagunenera:

Euskara erabiltzen dut lanean barre egiteko, haserretzeko, adiskidetzeko, akordiotara iristeko... Lagunekin eta familiarekin komunikatzeko. Ikertzeko eta ikasteko. Esna eta lo, amets egiteko. Nire seme alabekin jolasteko, pozteko, maitatzeko, zigortzeko, eztabaidatzeko... Ligatzeko, maitasuna egiteko, ongi pasatzeko... Eta beste edozein hizkuntzatan egin daitekeen guztirako. Erantzun guztiak Eusko Ikaskuntzak Wall Street Journalera bideratuko ditu: [www.euskosare.org/ene/2007](http://www.euskosare.org/ene/2007)

HERRITAR BAT

## Onofre Gamari

Udaletxean egin hidan galderari eman nion erantzunean gauza bat esatea ahaztu zitzaidan, eta zer ahaztuko eta justu hirekin ados nengoen gauza bakarra. Horregatik pentsatu diat komeni zela hona ekartzea, eta galdera jendaurrekoa zenez, ba, erantzuna ere bai: ni ere, hi bezala, asko pozten nauk hik botoa Aralar/Ezker Batuari eman ez izanaz.

IÑAKI ITURAIN

## Politikariek ez Karkaran

Onartu berriak diren (gure aurkako botoarekin) aurrekontuak eztabaidatzen ari ginen. Aurrekontu horien egi-

tasmoen artean, *Plaza*, Udalak kaleratzen duen aldizkaria, eta KARKARAREN arteko berdintasunak azaltzen ari ginen eta nola, nahi izanez gero eta KARKARAREN onarpenarekin posible izango litzatekeela bi hilabetetik behin edo Udalaren berri ematea lau orriko gehigarri bat erantsiz eta horrenbestez ez genuela *Plaza* aldizkariaren beharrik. Izan ere, aldizkari hau 44.000 euro kostatuko zaio herriari.

Horretan ari ginela, alkateak bat-batean, eta abixurik gabe ondorengo botatzen du: *Ni ados egon naiteke, baina politikaz hitzik egiten ez badute*. Denak ixilik, elkarri begiratu eta... ezin genuen sinetsi entzundakoa.

*Orioko Torquemada* berriak hainbat koloretako iritziak kaleratu dituen aldizkariari politika iritziak ezabatu nahi zizkion. Aurreneko momentua gogoratu ondoren, eta oraindik harridura handiz nola, *nola esan duzu?* galdetu zion zinegotzi batek; *Ez dugu inolako zentsurarik onartuko* esan zion beste batek.

Berehala etorri zitzaigun alkatearen azalpena: *Badakigu KARKARAKO langileek zein hanketatik egiten duten jo*.

Ah! noski, hori zen. Gora pentsamoldearen askatasuna! Beraz, EAJ-PNVkoak ez garenok ez daukagu iritziak plazaratzeko eskubiderik, *abixa pues!*

Eta langileak! Argi! Zeren ez bagara beren esanetara jartzen lanik egiteko eskubiderik ere ez.

Dena den argi geratzen zaizkigu alkateak KARKARAREKIKO dituen fobiak. Zuek kontrolatzen ez duzuen aldizkari bat denez, ez zaizue interesatzen kalean egotea eta saiatu zarete *Plaza* aldizkariarekin ordezkatzeko, baina Udalaren ekimena den itxura emanaz.

Gurekin ez kontaktu lan zikin hau aurrera eramateko. KARKARA aldizkariari aldiz, gure zorian eta gertutasunak helarazi eta gure aldetik esan, saiatuko garela zuen aldizkaria sustatu eta mantentzen.

ORIOKO EAE-ANV

ELIZA INGURUKO LANAK BUKATZEAR DAUDE ETA GOIKO KALERAKO 2. IGOGAILUKO PROIEKTUA AURRERA DOA

# Moilako lanak bukatu eta Txankako bidean hasiko dira

**Behar duen itxura hartzen ari da Orio pixkanaka: bederatzi hilabete pasa ondoren, bukatu dira moila berritzekoak, elizara doan aldapa ere laster izango dugu prest eta Goiko kalerako bigarren igogailuaren proiektuan moldaketa-lanetan ari dira. Txankako bidekoak dira hurrenak.**

*Construcciones Donosti eta Urbanizaciones Iruña (Codos)* enpresek bukatu dituzte herriko moila berritzeko lanak. Otsailaren 13an hasi ziren eta azaroaren 22a zuten horiek bukatzeko azken eguna. Hurrengoan bertan ireki zuten moila, bai errepidea eta baita oinezkoen bidea ere, agindu bezala.

## KULTUR ETXE ATZEA

Goiko kalerako bigarren igogailuaren hasierako proiektuak desadostasunak eragin zituen eta, ondorioz, Udalak zenbait aldaketa egin ditu. Horrenbestez, igogailua eta pasabidea, biak aldatuko dira: igogailuaren egitura metro eta erdi-bi metro txikiago izango da altueran. Goiko pasabidea, lehen amaitzen zen toki berean bukatuko da, baina bertara joateko egingo duen bidea aldatu egin da: igogailuak irteera beste aldera, frontoi aldera, izango du. Handik Iturbide kalera %6ko malda izango du.

Jon Redondo alkateak adierazi digunez, bizilagunei proiektu berria azaldu zaie dagoneko eta, orain, aurrekontuaren zain daude, batzordean onartu ahal izateko.

Kultur etxeko ondoko plazari, ia prest izan arren, igogailuaren lanak amaitu arte ez dela jendearentzat libre jarriko gehitu du Redondok.



Txukun eta dotore, gustura hartu dugu oriotarrok itxura berritutako moila.

KARKARA

## ELIZAKO ALDAPA

Elizako aldapa ere laster izango dugu prest. Abenduaren lehen egunetarako guztia txukun izatea espero du Udalak.

## TXANKAKO ERREPIDEA

Festetako tiobiboak atera bezain pronto, abenduaren 11n, Txankako bidea bi hilabete eta erdiz itxi egingo da.

## Hurrengo lanak

**Herriko arazo handienetako bati irtenbidea emateko, aparkaleku gehiago jarriko dira herrian: bata Anibarko Portuan izango da eta bestea Dike inguruan. Lehenak 49 auto hartuko ditu, Txanka parean, N-634 errepidean egingo den errotonda berriaren inguruan. Lanak laster hastea espero dugu, aurrekontuak onartu eta planoak egin bezain laster. Dikekoa, berriz, probisional izango da eta orain harri txintzarrez dagoenaren alboan jarriko da. 100 auto sartuko dira eta Bidegik materiala lortzean ekingo zaio lanari.**

JESUS RODRIGUEZ POUSA | OBRA ETA ZERBITZUETAKO BATZORDEBURUA

Autopistako sarrera-irteera izango den lekutik N-634 errepidean egingo den rotunda berrira bitartean, bidea erabat txukunduko dute: zabalera egokiko bi errei eta, seguru asko, bazterbidea izan ditzan.

Txankako errepideko beste zatia, autopista sarrera-irteera puntutik hondartzara doana, berriz, oraingoz bere horretan utziko da.

Bide batez, Sanikolas festak direla eta, Arizaga kalea ibilgailuentzat itxita egongo da abenduaren 5eko 17:00etatik 9ko 14:00ak arte. Beraz, moilatik barrena sartu beharko dute ibilgailuek herrira, eta Txankako bidetik atera.

Trafiko aldaketa horiek direla eta, arauak bete daitezzen, herritarren kolaborazioa eskatu du Udaltzaingoa.

IÑAKI GURRUTXAGAK ABENDUAREN 1EAN JOKATUKO DU FINALERDIETAKO SAIOA

# Saio ederra egin arren, Sukia ez da finalean izango

**Sukiak bukatu ditu Gipuzkoako bertsolari txapelketako lanak eta Gurrutxagak, berriz, abenduaren 1eko saioaren ostean jakingo du finalean izango den ala ez.**

Xabier Sukiak ez du finalean kantatzerik izango. Ederki aritu da Txapelketa guztian eta saio bikaina egin zuen finalerdietan, baina egun handiaren atarian geratu zen. Ikusmin handia zen Oartzunen eta horren lekuko Elorso kiroldogian bildutako 1.300 lagunak. Animorik ere ez zuen faltan izan Lizargateko mutilak: harmailako behe aldean pankarta dotore askoa nabarmen ikusi zitekeen *Sukia: enkargauta zio toreruan trajia* zioena.

Adituen esanetan, saioak gorabehera batzuk izan bazituen ere, entzulegoa ondo gustura uzteko moduko makinan bertso bota zituzten lehiakideek. Sukiak, esaterako, aipatzeko moduko bat baino gehiago kantatu zituen lanaldietan: Mantxirekin auzoko bazterrak garbitzen hasi zireneko bigarrena, itsu dagoen semeari gurasoen ninia dela aitortzen zionekoa... Azkenean, Jon Maia nagusi 499,5 punturekin eta finalerako txartelarekin. Sukiak, ondo aritu eta gero, 470 lortu zituen.

Gurrutxaga da lehian jarraitzen duen oriotar bakarra. Abenduaren 1ean jakingo da finalera sailkatzerik lor-



Sukia itsu dagoen semeari kantatzen ari zen unean.

G PUNTUA

## Lizargatekoak aipatzeko moduko bertso bat baino gehiago kantatu zituen lanaldi desberdinetan

tu duen. Ordiziako Majori kiroldogian izando da saioa, 18:00etan, eta Aitor Sarriegi, Iñaki Zelaia, Joxe Munduate, Mendiluze, eta Unai Muñoa izango ditu alboan.

## ERRIKOTXIAKOEN PLANA

Errikotxia taldeak, bestalde, abenduaren 16ko finala dela eta, honako proposamena egin die herritarrei: hasteko, bertsozaleek bazkaria egingo dute Altxerri jatetxean. 13:00etan izango da eta 20 euro balio du. Bazkal ondoren, Altxerri bertatik, autobusean joango dira Donostiako Illumbe zezen plazara. Autobusaren prezioa 5 eurokoa da. Izena Gabon tabernan eman behar da, abenduaren 4a baino lehen.

## LABUR

### SANIKOLASAK Argazki lehiaketa

Udalak argazki lehiaketa antolatu du sanikolasetarako. Honekin, 3. aldia izango da festetako irudi onenak sarituko dituztela. Partehartzaileek koloretako zein zuri-beltzeko argazkiak aurkeztu ahal izango dituzte, kultur etxean, abenduaren 10etik 14ra bitartean.

### GERTAERA

### Erreskatea San Joan mendin

Ertzaintzak gizonetzko baten hilotza ateratu zuen azaroaren 25eko goizean, San Joan ermita inguruan. Dirudenez, gizonari bihotzkoak eman zion eta larrialdi zerbitzuak segituan agertu arren, arazo orografikoak medio, helikopteroa behar izan zuten I.A.Z.Gren gorpua erreskatatzeko.

### ENERGIA

### Bonbilla banaketa

Energiaren Euskal Erakundeak eta Udalak antolatuta kontsumo gutxiko 300 bonbilla banatu zituzten hilaren 27an, plazan. Bonbillez gain, energia aurrezteko gida eta ibilgailuentzako biokarburanteen gaineko informazioarekin eta autoen doako gidatze ikastaroei buruzkoako bi liburuxka jaso ahal izan zituzten bertaratu ziren herritarrek.

**LURDES**  
ARRAZOEGIA

Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

**Allianz**

Marigre Zaldúa  
aseguru agentea

Bol. Ondo. 10 bete-oria  
telefonoa: 943 13 47 60  
faxa: 943 83 57 52  
e-maila: zaldua.delacruz-pa@allianz.es

**RAMIRO**  
argazkiak

www.fotoramiro.com  
fotoramiro@fotoramiro.com

610 69 76 68  
943 83 10 48

ORIKO PLAZA ALDIZKARIAK 44.000 EUROKO PARTIDA IZANGO DU 2008AN 11 ZENBAKI ARGITARATZEKO

# 2008ko aurrekontuak onartu ziren aldeko 6 botoekin

**Hilaren 27an izan zen azaroko udalbatzarra. Bertan erabakita geratu zen, besteak beste, datoren urteko ekitaldi ekonomikoari dagokion Aurrekontu Orokorra.**

Hilaren 27ko 19:00etan hasi zen azaroko Udalbatzarra. Eztatibatutako sei puntuak onartu ziren, tartean, 2008ko ekitaldi ekonomikoari dagokion 8.942.982 euroko Aurrekontu Orokorra. EAJ-PNV, EA eta PSOE-EEren aldeko botoekin, Aralar-EBren abstentzioarekin eta EAE-ANVren ezezko bozarekin egin zuen aurrera.

EAE-ANV eta EB-Aralarrek beren erabakia arrazoitzera koan, aurrekontuak azkarreki ekarri zirela udalbatzarre-ra salatu zuten. Iñaki Iturain EB-Aralarreko zinegotziak zehaztu zuenez, egindako batzarretan aurrekontuak abenduko udalbatzarrera atzeratzeko eskaera bi aldiz egin bazen ere, ez zen kontuan hartu. Joseba Goiburu EAE-ANVko zinegotziaren hitzetan, herritarren nahiak islatzeko denborarik ez izateak kreditu aldaketa ugari ekar ditzake.

Rodriguez sozialistak aurrekontua onartu bazuen ere, UEMAko, ikastolako eta udalbideko partiden aldekoa ez zela gaineratu zuen.

Jon Redondo alkateak,



Azaroaren 27an izandako udalbatzarrean puntu guztiak onartu ziren, 2008ko aurrekontua barne.

KARKARA

berriaz, denbora falta arrazoitzea bidezkoa ez zitzaioala iruditzen adierazi zuen, uztailetik alderdi guztiak lanean daudela gehituz. Alternatiba errealek ere ez zuela jaso gehitu zuen.

**ORIKO PLAZA ALDIZKARIA**  
Kultur arloari dagokionean, onartutako aurrekontuaren 44.000 euroko partida *Orioko Plaza* aldizkariaren 11 ale argitaratzeko erabiliko da. Iturain eta Goiburu ados agertu ziren *Orioko Plazak* udal kontuak

tratatu beharrean KARKARAK egin dezakeela azaltzean, horrela 34.000 euro aurreztuz. Proposamen horren arabera, kultur teknikari berriak erredaktatuko lituzke udal orriak eta KARKARAK publizitate bezala, orri horiek aldizkarian sartuko lituzke. Ez zen onartu.

Herritar bat ere galdera eta eskarien atalaz baliatu zen *Plazak* KARKARAK lantzen dituen albisteak jorratu ez ditzan eta gure aldizkaria eta udalarena modu batera, ezberdindu daitezela eskatuz.

**Kultur arloari dagokionean, onartutako aurrekontuaren 44.000 euroko partida, 2008an Orioko Plaza aldizkariaren 11 zenbaki argitaratzeko erabiliko da**

He apaindegia  
**MARIJO**  
Neska eta mutilentzat  
Eusko Gudari, 8 - bajo  
Tel. 943 13 47 29  
ORIO

apaindegia  
**MIRANDA**  
Iraia E. Sarriena  
farina, ato, bolbo, eskalera...  
behar diren arazo larriak  
eguzki diruzkoak  
Urdaneta bidea. T. +660 42 52 70 < SARAUTZ

Orioko Ogia  
**ORIOGI**  
OPIL OKINDEGIA  
Frontoi ondoan  
Tfnos: 943 83 01 89



7 urteko hutsunearen ondoren, Kontxako bandera bedeinkatuko da aurten.

KARKARA

JULIO ARANBURU ETA M. TERESA GALLASTEGI DIRA AITAJAUN ETA AMANDREA

## 19 bandera bedeinkatuko dira abenduaren 2an

**Aurtengo denboraldian 19 bandera lortu ditu Orioko arraun elkarteak. Horiek bedeinkatuko dituzte abenduaren 2an egingo den elizkizunean.**

Ohiturari jarraituz, arraun klubak denboraldian irabazitako banderak bedeinkatuko ditu. 2007an lortutakoan txanda abenduaren 2an izango da.

Banderak udaletxetik hartuta abiatuko dira arraunlari, patroiz, amandre, aitajaun eta gainerakoak 12:00etako mezara.

Elizkizuna amaituta, ekitaldia izango da plazan eta herriaren aurrean erakutsiko dira banderak. Ondoren, Saisar sagardotegian elkartuko dira bazkaltzeko.

Ohiturari jarraituz, arraun elkarteak jatordurako zenbait gonbite banatu ditu eta, aurtengoan, arraunlariei baka-

rik eman dizkie: 52 senior, 14 jubenil (horietatik 4 neska), 30 kadete (8 neska tartean) eta 15 infantil (8 mutilak); guztira, 110 arraunlari.

Julio Aranburu izendatu dute aitajaun, Orioren izena zabaltzen lagundu duen arraunaren jarraitzaile sutsua izateagatik. Amandrea, berriz, M. Teresa Gallastegi, Candy enpresako ordezkaría izango da, Orioren babesle 10 urte egin dituelako jarraian.

### BANDERAK

19 bandera irabazi dituzte aurten oriotarrek, horietatik 2 infantilek, 1 kadeteek, 5 jubenilek eta 11 seniorrek.

Infantil mutilek Gipuzkoako Batel Ligako eta Txapelketako banderak ekarri zituzten etxera.

Kadete mutilek ere batelean jokatu zuten irabazitako Gipuzkoako Txapelketako

bandera.

Jubenil gizonetako bateletako Gipuzkoako Txapelketa eta XXVIII. San Inazio banderak eskuratu zituzten. Trainerriletan irabazitako Gipuzkoako Ligako eta Txapelketako banderak ere bedeinkatuko dituzte.

Jubenil neskek Euskadiko Batel Txapelketan irabazi zuten bandera.

Seniorrak, berriz, Gipuzkoako eta Euskadiko Batel Txapelketan garaile izan ziren.

Traineruarekin Galiziako O Grovetik eta Boirotik, Pasai San Pedrotik, Getxotik, Kantabriako Castro Urdialestik eta Bilbotik ekarri zituzten banderak.

Horiez gain, Kontxako bandera preziatua, Gipuzkoako Traineru Ligakoa eta I. Aginagako trainerilla ikurriña ere bedeinkatzera eramango dituzte 2an elizaraiano.

### LABUR

#### ARETO FUTBOLA

## Erdipurdi

Denboraldiko 5. partida irabazi zuten Nazional kategoriako Orioko Tabernako mutilek azken jardunaldian, Elorrioren aurka 0-1 irabazita. Saikape-neko 5. postuan daude.

Bigarren taldeak, berriz, Plastigaurren kontra 4-2 galdu zuen.

#### MENDIA

## Boulder taldea herrian

Talai Mendi elkartearen barruan beste talde bat sortu da: Talai Mendi boulder taldea.

Herrian eskalada lantzeko sortua, rokodromoa eraikitzea izango da taldearen lehen lana. Jendeak parte-hartzea etalaguntza ekonomikoa behar dute horretarako, gainerakoa taldekideek berek sortuko baitute.

Talai Mendi boulder taldeko kide izateko bibal-dintza bete behar dira nahitaez: federatua egotea eta Talai Mendiko kide izatea.

#### ARRAUNA

## Esnalet eta Sarasua sarituak

2007ko Gipuzkoako arraunaren 7. galan Xier Esnalet eta Iñaki Sarasua sari bana jaso zuten.

Zilarrezko intsignia eman zieten biei, azken urteotako federazioko zuzendaritzan aritzeagatik.

Bestalde, ekitaldi berean banatu ziren aurtengo Gipuzkoako Ligako Traineru txapelketaren banderak ere. Getariak jaso zuen KTE Ligakoa eta Oriok TKEkoa.



SASKIBALOA

## 3x3ko txapelketa

Ikastolako kultura batzordeak zenbait ekitaldi antolatu ditu sanikolasetarako, 3x3 saskibaloiko txapelketa horien artean. Abenduaren 5ean izango da, Karelana. Bi kategoriatan banatuko dira jokalaria: haurrak (10-14 urte) eta gazteak (14 urtetik gorakoak). 17:00etan hasiko da aurreneko lehia eta 18:30ean zaharrena. Izen-ematea azaroaren 30ean bukatu bazen ere, egun berean ere aukera izango da. 5 euro ordaindu beharko dira eta 3-5 lagunek osatu beharko dute taldea. Bukaeran sariak banatuko dira. Kirol materiala haurrentzat, txapelak eta afaria egiteko txartelak ere izango dira.

SQUASHA

## Agirre txapeldun

Iñigo Agirre kirabazizuen, urriaren 27an, Zarauzko kiroldegian jokatuako I. Squash Txapelketa Azkarran. Guztira hamalagunek hartu zuten parte.

Lau partida jokatu zituzten, bost setetara eta hamabost tantora izan zen set bakoitza. Finala Jon Atxutegiren aurka jokatu zuten Iñigok eta azken emaitza 3-0 izan zen, oriotarraren alde.

Informazio gehiago nahi izanez gero sartu [www.squashzarautz.com](http://www.squashzarautz.com) helbidean.

KARELAN ARITUKO DA, ABENDUAREN 1EAN, 15:00ETATIK AURRERA

# Gozategik 100 km egin nahi ditu ergometroan

**Joakin Gozategik 100 kilometro egin nahi ditu ergometroarekin. Karelana izango da, abenduaren 1ean. Berarekin izan gara.**

**100 kilometro ergometroan, nola okurritu zaizu halakorik?**

Erdi broman, erdi serio hasitzen guztia. *Bixio* Loidi eta biok elkarriz esaten genion horrelakoren bat egin behar genuela. Kontua hozten joan zen, baina gero, erromesaldia bukatuta, di-da, bakarrik bada ere egitea erabaki nuen.

**Tankera horretako markarik egin da inoiz?**

Eztakit, baina ez dit axola. Nirea erronka pertsonala besterik ez da, ez dut kontua haizeratzeko halako asmorik.

**Nolakoa da prestaketa?**

Ez dut aparteko ezer egin, denbora gutxi daramat eta. Santio bidea egiterakoan dezente aritu nintzen ergometroarekin baina egun hainbeste ez. Ez dut halako disziplinarik jarraitzen, normaljan eta edaten dut, ez naiz bereziki zaintzen den horietakoa. Nahiago dut ordu erdi gehiagoz entrenatzen aritu gero gogoia dudana hori jateko.

**Beraz, larunbaterako prest.**

Bai, gainera ondo ikusten dut nere burua. Luze egingo da, seguru, baina laguntzailerik ere ez zait faltako. Juanjel Garmendiak, nerez



Aitor Lertxundi, Joakin Gozategi eta Gotzon Izeta erromesaldian.

G. ARAKAMA

gain, beste bi ergometro jarriko dituenek, aldamenen jende dezente izango dut laguntzen: batzuk ordu erdiz, beste zenbait ordubetez...

**Zeintzu arituko zarete?**

Nirekin udako erromesaldian izandako zenbait lagun badira tartean. 15:00etan hasiko naiz eta 23:00ak alderako

bukatzea espero dut, gauzak nahi bezala badoaz behintzat. Asmoa da azkeneko ordubete osaba Jose Luisek eta semeak ere laguntzea.

**Ezer gaineratu nahi duzu?**

Tira, erronka pertsonala da beste asmorik ez det.

Ea, behintzat, lortzen dudana.

**TRAGOXKA PUB**

[pabtragoxka@bwnmail.com](mailto:pabtragoxka@bwnmail.com)  
Aritzaga, 11 tel. 943 13 22 36

**Zaragueta Eskola orio**

telefonoa: 943 89 40 52  
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

**TAILER MEKANIKOA MANTEROLA S/L**

TKORROKAK - BALBULAK

Santiago ezuzoa - 18 postakutira  
Tel. 943 830 743  
Fax. 943 134 634  
E-mail: [tmmanterola@euskalnet.net](mailto:tmmanterola@euskalnet.net)  
20 810 ORIO - GIPUZKOA

**TMM**

**AENOR**  
Eusko Enpresen Erregistroa  
180 9002

**Eusko Enpresen Erregistroa**

Esterako balbula  
AENOR kalitate ziurtagiriduna



Gero eta gazte gehiago dira Aian, eta interes handia erakutsi dute jakiteko haienzako leku bat egongo den.

KARKARA

GAZTEAK, ESKOLA ETA ZERBITZUAK EMATEKO BEHARRAK LOTUTA DAUDE MOMENTU HONETAN

# Gazteentzako lekua eztabaidagai

**Gazteen beharrak, Mataderi etxea saltzeko edota gazteentzat egokitzeko erabakia eta eskola handitzeko asmoa lotu egin dira ezdabaidan.**

Mataderia sekula ez da hiltegi moduan erabili, eta aurreko saltzeko asmoa planteatu du Udalak, etxeak egiteko, baina joan den asteko gobernu batzordean Antxon Gomez zinegotziak kontrako iritzia azaldu zuen, EAE-ANVko kideei eraikuntza egokia iruditzen baitzaie gazteentzako leku bat egiteko.

## GAZTEEN BEHARRA

Gero eta gazte gehiago dagoela herrian dio Gomezek, eskolan bertan ikusten da, baina iruditzen zaio gazteak elkarrekin egoteko ez dutela leku egokirik: 12-17 bitarte-

*koek behar handia dute eta alde askotatik egokia da Mataderi etxea: pixka bat aparte dago, baina herrian bertan, bi solairurekin posible litzateke funtzio diferenteetarako lokala egitea... Udalarena izaten jarraituko luke, beste garai batean beste zerbituetarako erabili nahi izanez gero. Ez da lekua ematea soilik, dinamika bat sortzea luke helburu, gazteek herrian zerbitu egitea, inbertsioa litzateke gazteen kulturaren. Ondo daki Gomezek ezin dela aurreikusi nola erantzungo luketen: Baina garbi dago ez direla inplikaturako herrian ez badago ezer haienzat.*

## DINAMIKA SORTU

EAJkoek ez dute berdin ikusten. Etxea salduta, dirua beste inbertsio batzuetarako litzateke, beti ere labaderoa herria-

ren eskuetan geldituta. Gainera, Iturain alkatearen iritzirako: Momentu honetan ez dugu gazteleku baten behar handirik ikusten, baina, etorkizunera begira, horrelako zerbitzuak kasko inguruan egon behar dute. Eta lokala ematea baino lehenagokoa da monitorean bidez 12-18 bitartekoak elkartzea eta antolatzea dinamika bat sortzeko, elkarrekin lana egin eta ardura hartu, lortu nahi duten zerbituak antolatzeko. Bestalde, desegokia iruditzen zaigu Mataderia, bai kokapenagatik, bai obra handia egin beharko litzatekeelako.

## ESKOLA ETORKIZUNEAN

Iritzi kontrajarriak baldin badira ere, ados jarri dira salmenta, momentuz, gelditzeke, eskola inguruan ere zerbitu egiteko beharra ikusten

delako eta, akaso, horrekin lotu daiteke gazteentzako zerbitzua. Abenduan, batzorde bat sortuko dela esan digu Iturainek, eskola, guraso elkarre eta Udalaren ordezkariak biltzeko: Jar ditzagun mahai gainean aukera guztiak, handitzeak edota eraikin berri bat egiteak zer gastu eta herriarentzat zer hobekuntza ekarriko lituzkeen, ezer alboratu gabe. Eskola handituz gero, horretan eskaini litezke zerbitzu berriak, edo eskola gehi beste gauza batzuetarako eraikuntza eginez gero, gaurko eskolak erabili genitzake, zerbitzuak gehitzeko edo lekuz aldatzeko. Hala ere, gazteen beharrek garrantzi handia dutela familia askorentzat iruditzen zaio Gomez: Nahiz eta horren zain egon, gazteentzako lokalaren beharraz hitz egin behar da.

KOOPERATIBA KIDEAK ETA UDALA AURREZ AURRE JARRI DITU DESAKORDIOAK

# Etxeen erosleak ez daude ados ezarritako baldintzekin

**Arazoak ditu Ametsgain kooperatibak Udalarekin, eta bilerak izan dituzte erosleen desadostasuna adierazteko.**

Orain dela 2 urte Armendigain, Ametsgain eta Santioko kooperatibak sortu ziren, 60 aiarrek etxebizitzak erosteko. Adostutako hasierako baldintza zen 10 urtean saltzeko prezioa IPK-rekin lotuta egongo zela, baina geroxeago 20 urteko epea onartu zuten kooperatibakide guztiek. 2007ko uztailan, berriz, kalean jakin zuten 2006ko irailean Lur Zoru Lege berriaren arabera permanentea izango zela IPK-rekin lotzeko murriztapena. Hori jakinda, eta etxeak dagoeneko ordaintzen ari direla ikusita, bere desadostasuna azaldu diete Ametsgain kooperatibakideek Udalari.

**KLAUSULAREN GARRANTZIA**  
Kooperatibakideek eskatzen dutena garbi dagoela dio Iona Rekarte presidentea: *Etxea erosteko adostu genituen baldintzak mantentzea, ez baitzaigu zuzena iruditzen hitzartu ondoren eta behin ordaintzen hasi eta gero erosteko baldintzak aldatzea.* Udalak, berriz, dio 20 urteko epea onartu zenean, klausula bat zegoela, non geroxeago legea aldatzen bazen, eragina izango zuen akordioan. Igor Iturain alkateari iruditzen zaio 20 urtera erosten ari diren propietateekin espekulazioa egin nahiko dutela, eta azpimarratu du egin den guztia legalki egin dela: *Klausulan garbi jartzen du legeak ezarritako urte kopuru handiena izango zela. Hiru kooperatibetan Udalak errekonozitu du gure akatsa izan dela informazioa ezezabaltzea behar zen garaian. Baina legea sortu da eta (nahiz eta EAE abstenitu) Udalak onartu egin du.*



Ametsgain kooperatiba egiten ari diren etxebizitzak.

KARKARA

**IRTENBIDE EZBAIGARRIA**  
Kooperatibakoen arabera, ordea, irtenbide legala bada go onartu zituzten baldintzak mantentzeko: *Legeek inoiz ez dute atzera eraginik, eta proposamen zehatzak egin dizkiegu, baina ezetz borobila-rekin erantzun digute. Aipatutako klausula ez da hain argia, eta azken interpretazioa epaile batek egin behar du behar bada. Etxe hauek eraikitzen hasi ginen momentuan alkateak orain onartu nahi ez duen kalifikatzeko era erabiliko zen. Ez dugu ulertzen zergatik lehen onargarria zen eta orain erabat onartezina. Guk ez dugu espekulatu nahi eta horren isla da 10 urtetik 20 urtetarako aldaketa erabateko adostasunarekin onartzea. Udalak orain proposatzen duen erara geroxeago etxea saldu behar izanez gero, dirua galduko dugu beti, eta hori ez da bidezkoa.* Plantea-

**Adostu genituen baldintzak mantentzea nahi dugu, ez baitzaigu zuzena iruditzen hitzartu ondoren aldatzea**  
—Iona Rekarte

tutakoa onartzeko prest ez dagoela esan digu alkateak: *20 urtean babestua baina klausula baten bidez librea izendatzea nahi dute. Alkatea bezala ez nago prest libre bezala izendatzeko, arrazoi askorengatik, eta ez dut uste Diputazioak onartuko lukeen libreak izatea. Gainera, ez nago ziur erregistratzaileek 20 urteak errespetatuko lituzketen, hamar urte baino ezin baitu zuri jarri.*

LABUR

## Gaztain Eguna

Gaztain Eguna ospatuko dute Aian abenduaren 2an. Eriz Magoaren emanaldia antolatuta da 3 eta 12 bitarteko haurrentzako euskaraz 17:00etan kultur etxean. Ondoren, gaztain jana, sagardoa, freskagarriz eta pastez lagunduta eskainiko du Lardizabal Guraso Elkarte antolatzaileak.

Bestalde, opariz betetako otarra zozketatzeko zenbakiak salgai dituzte batzordekideek.

## Obra berriak Andatzen

268.530 euroko aurrekontua duten obrak egingo ditu Urbycolan enpresak gasa eta ura bideratzeko. Ibai aldean aparkaleku batzuk eta gas ontziak jartzeko lekua egingo dituzte eta Toki Epeleko eta Buresturdingo ingurua txukunduko dute. Sei aste epea izango du enpresak lana bukatzeko: abenduaren 10ean hasiko dira, eta aurreneko fasea 21 erako bukatu. Gero, Gabonak pasa ondoren, urtarrilaren 7an ekingo diote berriro, lana bukatu arte.

## Lokal komertzialak

Lau lokal eta trasteroak eskatu dituzte farmazia, kafetegia eta pelukeria jartzeko. Aia Lantzenek abenduan egingo duen kontseiluan hartuko du honi dagokion erabaki definitiboa.

## Donostiako maratoia

Laurentxi Iturain izan zen aurreko igandean Donostiako maratoia bukatu zuen aiar bakarra. 3 ordu 11 minutu eta 9 segundu behar izan zituen ibilbidea egiteko eta 726. iritsi zen helmugara.

## AIAKO LEIHOA

# Maratoiaren gurutzeta eta aurpegia

**D**onostiako maratoia berezia da: antolaketan ona, jendearen berotasuna, lagun asko tartean, Anoetan bukatzea... guzti horrek motibazio handia ematen digu.

Prestaketa 5 edo 6 hilabete lehenago hasten da; lehendabiziko hilabeteak oso lasaiak dira, fondoa eta erritmoa hartzeko batez ere. Saio gogorrenak azkeneko hiru hilabeteetan hasten dira, 1000 edo 3.000ko serieak eginaz eta batzutan bi orduko korrika saioak ere. Oso burugogorra izan behar da errutina horretan sartzeko eta janaria ere zaindu behar da. Azken entrenamenduak dira politenak, zeren eta normalean Behobia bezalako karrera batzuk egiten dituzu bi aste lehenago.

Froga egunean urduri

nago; aurreko hilabetetako lan guztia egun horretan ikusiko da; motibazio ikaragarria, familia, lagunak... han daude zu ikusteko.

Hotz egiten du Anoetan baina egun zoragarria korrika egiteko, ia 3000 korrikalari bere marka hausteko gogorekin jendearen animo eta berotasunaren laguntzaz. Zoritzarrez, oraingoan kirolak

alde txarra erakutsi dit eta 25 kilometroan erretiratu egin behar izan dut lesio bat dela eta; hainbeste sufrimendu ezertarako, kirola batzutan gurutzeta da!

Baina karreraren alde alai ere erakutsi nahi dizuet kuriositate batzuekin. Adibidez, ez nuen sekula pentsatuko maratoi batean DJ bat topatuko nuenik *kaña* ematen kirola-

riei. Eta txiparen kontua gero eta aurreratua dago. Denbora markatzeko balio duela denok dakigu, baina 3000 lagun argazkia ateratzeko balio zuenik edo honen bidez arratsaldean mobilera mezua iristea zure denbora, sailkapena eta kilometroko batzbestekoarekin, hori nik ez nekien.

Antolatzaileei aldaketa bat proposatu nahi nieke: edari isotonikoak ez ditzatela baso haundi horietan eman, ez baitago korrika eginez hortik edango duenik, eta bestela egin ezazue froga txiki bat.

Gauzak horrela, nik korrika segiko dut gorputzak *bale* esan arte.

AITOR HOYOS

**Oso burugogorra izan behar da errutina horretan sartzeko eta janaria ere zaindu behar da**

**Ez nuen sekula pentsatuko maratoi batean DJ bat topatuko nuenik *kaña* ematen kirolariei**

## TXOKOAK ETA JENDEA



## Musika ikastaroak

Musika ikastaroak martxan daude; gaur egun hainbat instrumentu jotzen irakasten da (trikitixa, pianoa, panderoa, gitarra, txalaparta...), baina hasiera batean trikitixa eta panderoarekin bakarrik hasi ziren.

Argazkian dituzue Arkaitz Allur irakaslearekin Eli, Laida, Ane, Maialen, Maitane, Maialen, June, Miriam, Garazi, Lander eta Ainara Iturrarango parkean, atsedean une batean.



1. SARIA: Iluntasunaren argia  
ANE MAITE MANTEROLA

## AIAKO II. ARGAZKI LEHIAKETA

*Udalak antolatutako II. Argazki Lehiaketaren sariak dituzue hurrengo orrietan. Gaia Aiako auzoak zen eta bi kategoriatan banatu dituzte: bata, herritarrentzat eta, bestea, kanpotarrentzat. Herritarren artean Ane Maite Manterolak jaso du 1. saria, Iluntasunaren argia argazkiagatik, Clara Mintegik 2.a Hirumugeta (Elkano) izenekoagatik eta Aharoa Zuloagak 3.a Palaziyo argazkiagatik.*

*Herritarrek ez direnen artean Ane Agirrek irabazi du lehenengo saria Posta argazkiarekin, eta M. Ulvedalek Leihoarekin. 3. saririk ez da eman.*

*Denera 43 argazki jaso zituen Udalak, 15 partaidek eginda, eta horietatik 10 ziren aiarrak. Sariak eman dituzten mahaikideak honakoak izan ziren: Koldo Beraza grafika gaietan aditua, Maitane Arrillaga zinegotzia eta Igor Iturain alkatea.*

*2008ko egutegia egiteko argazkiak ere horietatik aukeratuko dira. Fotoak ikusgai izan dira kultur etxean, eta herritarrek aukera izan dute botoa emateko, gustukoena zein duten esateko. Botoen arabera erabakiko da zein argazki azalduko diren egutegi berrian. Lehia horretan 82 lagunek eman zuten botoa, eta emaitzak Gabonetan banatuko den egutegian azalduko dira.*



2. SARRIA: Hiruñugeta  
CLARA MINTEGI



3. SARRIA: Polazio  
AHAROA ZULOAGA



1 SARIA: Posta  
ANE AGIRRE



2 SARIA: Lehoa  
MARIA AZPILLAGA

# Aian langilea behar dugu

## Aiako erredakzioan aritzeko



Karkarak langile bat hartu nahi du, aldizkariaren Aiako lan taldean aritzeko. Interesa baduzu, aldizkariaren lokalera jo ezazu, lanpostu hori betetzeko eskatzen diren baldintzak eta eskaintzen diren ordainsariak eta gainontzekoak ezagutzeko. Telefonoz ere hots egin dezakezu: 943 83 15 27.





# SANIKOLASTAK 2007

Festa programa



# Nahikari

## HAUR DENDA

Arrantzale Kalea, 35  
20810 - Orío

Tel. 943 83 36 30  
www.nahikari.es

goiko solairuan



eskailerak



beheko solairuan

# libe

dietista  
nutrizionista

## dietetika eta elikadura aholkularitza zentro BERRIA

Libe Garmendia      Eusko Gudariak 35. (sarrera Arrantzale kaleatik)  
Tel: 697 23 86 56 - 943 83 64 94    e-posta: lbe\_garmendia@hotmail.com

- + Dieta pertsonalizatuak: kirolariak, haurrak, gazteak, 3. adinekoak, haurdunaldia, menopausia...
- + Osasun arazoentzako tratamenduak: obesitatea, diabetea, gaixotasun baskularrak...
- + Gorputz konposizio neurketa: gihar, gantz eta uren portzentaiak
- + Ondo jaten ikasteko plangintzak
- + Menuen planifikazioa

GOZATEGI FRUTA-DENDAK

FESTA ZORIONTSUAK

OPA DIZKIZUE



# ORIO'S Shop

JANTZIDENDA

Eusko Gudariak, 17  
Tel. 943 83 12 44  
ORIO

*Festak ondo pasa!*

# Abenduak 5, asteazkena

17:30 3x3 saskibaloia lehiaketa Karelana,  
Ikastolak antolatuta

18:00 Haurrentzako tailerrak plazan

19:00 Haurren txupinazoa plazan

19:00 Pilota txapelketako partidak frontoian

19:30 Txistulariak, buruhandiak eta erraldoiak kalez kale

19:30 Muthiko Alaiak taldearen kalez kaleko emanaldia

23:00 Txupinazoa txarangarekin

00:00 Musika plazan



# Abenduak 6, osteguna

## Sanikolas eguna

- 09:30 Txistulariak kalez kale
- 11:00 Meza nagusia Salatxok abestuta
- 12:00 Jubilatuen hamaiketakoa Zaharren Babes Lekuan
- 12:30 Salatxo abesbatza kalez kale
- 12:30 Dantzari txikien txapelketa plazan, Harribilek antolatuta
- 18:00 Haurrentzako berbena *Gaur Jaia* taldearekin
- 19:00 Pilota txapelketako partidak frontoian
- 19:00 MacKensy's clan Band taldea kalejiran
- 22:30 Bertso saioa Karelán, Errikotxiak antolatuta; Egaña, Mendiluze, Lujanbio, Peña eta Eizagirre
- 23:30 *Triki ta Ke* taldea plazan



# Abenduak 7, Ostirala

gan-pasa eguna

07:30 Txokolate jatea

08:00 Txaranga kalez kale

09:30 Jolasak Ikastolako pergolan

11:00 Haurrentzako parkea Karelan

11:00 Hamaiketako plazan

12:00 Kontzertua plazan: Mikel Aranzabal eta Duo Zubi azpi

13:00 Siesta herrikoa

16:30 Haurrentzako parkea Karelan

17:30 Erritmo afrikarrak plazan, Ikastolak antolatuta

18:00 Kalejira koloretsua:

*ez AHTrik, ez errausketarik, herriaren hitza errespetatu,  
Gaztetxea orain!*

20:45 Herri afaria frontoian

23:30 Kontzertua plazan: **ATHOM RUMBA**

Bapo Morgan

Restos Sucios



# Abenduak 8, larunbata

euskal jaia

09:30 Txistulariak kalez kale

10:30 Haur, gaztetxo eta gurasoentzako jolasak Karelana, Txurruuskik antolatuta

12:30 Sardin erreak eta sagardoa banatuko da plazan,

12:30 Txalaparta erakustaldia plazan

12:30 Kalejira trikitilariekin, ttunturroekin eta apaindutako idi parearekin

13:00 Egunsenti otxotearen kalez kaleko saioa

16:30 Herritarren arteko frontenis txapelketa frontoian

18:00 Herri kirolen erakustaldi mundiala Karelana, Heidu! taldearen eskutik

18:00 Lumagorri haur berbera plazan

19:00 Txistulariak eta buruhandiak

23:00 Patxi eta kompainia plazan



# Abenduak 9, igandea

sanpedroak arte... ariyo!

09:30 Txistulariak kalez kale

12:00 Zaldi lasterketa hondartzan

15:00 Kale azkarreko txapelketa kultur etxean,  
Ikastolak antolatuta

17:00 Pilota txapelketako finala frontoian



# PILATES Aparatuekin

## FISIOTERAPEUTA BATEK ZUZENDUTA



Aparatu berezien bidez giharren flexibilizazio eta sendotasuna lortzeko metodoa, postura egokia eta arnasketa koordinatuz

Indibidualki eta bikotekako lan pertsonalizatua

Edozeini egokituta



 **sinergia** lankidetzaren  
fisioterapeuta

Ibal Ondo 1 - Orto

Tifa. 943 130 577 - 685 718 595

**ZAINDU ZURE OSASUNA**



euskaraz ere,  
**NATURALITASUNEZ**

Euskadiko Kutxan euskaraz erreta ematea ez da zerbitzua bat.  
Gure lan egiteko modua da.

  
**CAJA LABORAL**  
SEGURIDAD SOCIAL



*Jarduera fisiko eta kirolaren zientzian lizentziatua, Gipuzkoako herri kirol federazioan dabil lanean jo eta ke Unai Amenabar, ekainaren bukaera aldetik gaurdaino. Jakin, badaki, lan handia duela egiteko eta gogotsu ekin dio egindako apustuari. Erronkaz eta helburuez aritu zaigu hitz eta pitz.*

LORE BERASALUZE

## **Z**er bide egin duzu herri kirolen federaziora iristeko?

Gipuzkoako herri kirol-tako federazioak eta pilotakoak harreman bikaina dute. Izan ere, biek egoera ezberdina izan arren —frontoia herri guztietan dago—, pilotakoak egindako ibilbidea nolabait ere da guretzat.

Kontua da, herri kirolen elkarteko lehendakaria pilotako federazioko kide batekin jarri zela harremanetan eta bera, kasualitatez, irakaslea nuela momentu hartan. Berehala etorri zen niregana, interesatzen zitzaidan galdetzeko. Niregana zergatik etorri zen ez dakit, baina herri kirolaren munduko inor nahi ez zutela bai. Kanpoko batek beste begi batzuekin ikusten ditu gauzak.

Hitz egiteko prest nengoela erantzun nien eta proiektua azaldu zidaten. Egitasmo polita eta interesgarria iruditu zitzaidan eta segituan onartu nuen.



KARKARA

UNAI AMENABAR | HERRI KIROL FEDERAZIOKO ZUZENDARI TEKNIKOA

# “Herri kirolak berpiztearen aldeko apustua egin dugu”

**Zein da zehazki zure lana?**

Ni sartu aurretik elkarteak herri kirolak sustatzeko jarduera programa bazuen, baina ez zen Aldundiaren gustukoa. Programa aldatu behar zela eta, beste bat egin zen, ni tartean nintzela; aurrekoan oinarritutakoa, baina ezberdina. Hori onartu egin zuen Aldundiak eta nire lana, beraz, hori martxan jartzea da.

**Zertan datza programa hori?**

Programaren mamia azaltzeko, egoeraren berri ematea beharrezkoa iruditzen zait. Lehen, 5 modalitate eta zenbait joku sartzen ziren herri kirolen barruan: sokatira, txingak, zakua eramatea, lokotx biltzea eta giza proba; eta toka bezalako herri jokoak, esaterako.

Egun, 18 kirol daude herri kirolen barruan: aizkora proba, sega, harri jasotzea, sokatira, lasto altxatzea, lasto botatzea, lokotx biltzea, trontza, zakua eramatea, orga, ingudea, txinga, harri zulaketa, giza proba, zaldi proba, idi dema eta asto proba. Horietako 4 kiroletan abereak egiten dutan, gainerakoetan gizakiak. Batzuk ez dira ezagutu ere egiten; beste batzuk, ezagutu bai, baina ez dira praktikatzen, lastoa altxatzea eta zakua eramatea, esaterako.

Guk, bitan banatuta dagoen gure egitasmoaren bitartez, herri kirolak berpiztearen aldeko apustua egin dugu.

Herri kirolen sustapena ikastetxeetatik hastea erabaki dugu eta, eskola kirolaren baitan sartu. Jendeak kirol horiek ezagutzea, eta kirolariak eta ikusleak sortzea da helburua.

Proposamena zenbait ikastetxetan aurkeztu ondoren, eskolak berak erabakitzen du interesatzen zaion ala ez. Oriori dagokionez, iaz Zaraguetak hartu zuen parte. Aurten, epeak irekita jarraitzen duen arren, ez dugu haien berririk oraindik.

Ikastetxeak interesa erakusten badu, ez gara gu izaten bertara joaten garenak. Xiba taldea arduratzen da horretaz. Haien eta gure arte-

an etengabeko elkarlana dago.

**Eta bigarren atala?**

Herri kirolaren inguruko mugimenduak bilduko lituzkeen eskolak sortzea litzateke bigarren zeregina. Gipuzkoako eskualde guztietan eskola bana sortzea da asmoa.

Eskola kirol jardueretatik hasi eta goi errendimendura artekoa hartuko lituzke eskolak bere gain. Beharrezko baliabide materialak eta giza baliabideak eskainiko lirateke horietan.

Eredu bat aurkeztu da dagoeneko eta Aldundiarekin ados jarri nahian gabilta. Datorren urtean, bi eskola jarri nahi ditugu martxan: Tolosaldean bata eta Goierrialdean bestea.

**Eta nola arituko dira eskola horiek?**

Eskola bakoitzak hiru zeregin izango ditu. Lehenengo eskola kirolari dagokiona izango da. 8-16 urte bitarteko haurrei zuzendua dago eta herri kirolei buruzkoak ikasten arituko dira.

Bigarrena, konpromiso aldia deitzen dioguna da. Beste kiroletan bezala, eskolan jarraitu nahi dutenek astean bitan-edo, bertara joateko konpromisoa hartuko luke: gehiago ikasteko, sakontzeko balioko die. Etapa horretan, modalitate guztiak jorratuko dituzte.

Azkenekoa, teknifikazioa izango litzateke. Errendimenduko arloa eta parte hartzea bultzatuko dira. Profesionalak formatzeaz gain, jendea pilotan jokatzerantz frontoira joaten den bezala, astean bitan herri kirolen eskolara joatea lortu nahi dugu; lortzen ez bada ere, behintzat, aukerarik eskaini. Materiala beti prest izatea eskatzen du horrek. Adibidez, aizkorarekin trebatu nahi duenak, egurra, prestatzailea... eskura eduki ditzala.

Bestalde, herri arteko jaialdiak eta txapelketak ere egin nahi genituzke. Eta eskolak erakusketei ere eman nahi die erantzuna, horiek ere gainbehera datoz eta. Izan ere,



maila goreneko aizkolariak eskatzen dira horietarako. Gazteak ez du balio izaten. Gainera, aizkolariak bakarrik jartzean, aspertu egiten da ikuslea eta harrijasotzaileak ere jarri egin behar, horiek ere goi mailakoak, jakina. Azkenean, ordu beteko saioa garesti ateratzen da oso.

Eskolak abian jartzean, konpromisoaren aldiak dauzkanen herriko festetan erakustaldiak egin ditzakete, maila ona erakutsiko dute eta.

**Horren egoera grisa al dute, bada egun herri kirolek?**

Orain arte herri kirolak baserriarekin eta gizonarekin



KARKARA

lotu izan dira, kirol zakartzat hartu da. Gainera, belaunaldiz belaunaldi etxekoen artean zabaldu diren kirolak izan dira: aita harrijasotzailea zen familian, semeren batek jarraitzen zion bidea. Horrela, ia galdu arte. Herri kirola kalera hurbiltzea beharrezkoa da. Estereotipoen mende egon

da urteetan, eta eragin handia izan du horrek. Hori aldatzera gatoz.

Egun, 4 proba daude indarrean: sega, harrijasotzea, aizkora proba eta idi-dema. Besteak gero eta gutxiago aipatzen dira. Esate baterako, Gipuzkoan sokatiran jarduten diren bi talde besterik ez dira

#### IZAERA

**“Orain arte herri kirolak baserriarekin eta gizonarekin lotu izan dira, kirol zakartzat hartu da. Kirola kalera hurbiltzea beharrezkoa da. Estereotipoen mende egon da urteetan eta, eragin handia izan du horrek.”**

#### HEZKUNTZA

**“Herri kirolen sustapena ikastetxeetatik hasia erabaki dugu, eta eskola kirolaren baitan sartu. Jendeak kirol horiek ezagutzea, eta kirolariak eta ikusleak sortzea da helburua.”**

#### ESKOLAK

**“Herri kirol inguruko mugimenduak bilduko lituzkeen eskolak sortzea litzateke nire bigarren zeregina. Gipuzkoako eskualde guztietan eskola bana sortzea da asmoa.”**

#### HELBURUAK

**“Profesionalak formatzeaz gain, jendea pilotan jokatzen frontoira joaten den bezala, astean bitan herri kirolen eskolara joatea lortu nahi dugu. Lortzen ez bada ere, behintzat, aukera hori eskaini nahi dugu.”**

#### ABANTAILAK

**“Egoerari buelta emateko ari gara lanean eta horretan herri kirolak badu abantaila: 100 kiloko laguna harria jasotzeko egokia da; 60 kilo dituen lokotsak biltzen ondo moldatuko da. Guztiok balio dugu zer baitetan aritzeko.”**

geratzen. Lokotxibiletarekin gauza bera gertatzen da: probatu denok egin dugu, baina jarraipenik ez du izaten.

Hala ere, azken urteotako beherakadaren ondoren, pixka bat pizten ari dela dirudi. Kasurik argiena herrian bertan daukagu, orain sortu den taldearekin. Interes badago

ela agerian geratzen da.

Egoerari buelta emateko ari gara lanean eta horretan herri kirolak badu abantaila handi bat: 100 kiloko laguna harria jasotzeko egokia izango da; 60 kilo dituen lokotsak biltzen ondo moldatuko da.

Guztiok balio dugu zer baitetan aritzeko.

## ADARRETATIK HELDUTA

# Karkara.com-en jasotakoak

**G**ustura, baina nahikoa kezka bagenuen azaroaren 5ean, Karkara.com-ek bideari ekin zionean. Gustura, aspaldiko erronka genuelako eguneroko informazioarena eta kezka, ezin jakin genezake-lako herritarren erantzuna zein izango zen. Lehen hila-betea kunplitzear, badugu gustura egoteko nahikoa arrazoi.

Argazkien galerian bada zuen irudiekin osatzen ari den karpeta. Piskanaka, ari zarete denetariko irudiekin betetzen. Notiziek ere, jasotzen dituzte zuen komentarioak. Sorpresarik handiena, agian, blogekin hartu dugu, alderdi politikoenekin batez ere. Aiarrekiko eta oriotarrekiko kontaktu zuzena mantentzeko asmoarekin egin genien gonbita alderdiei, eta ezin esan indiferentzia nagusitu denik: 29 mezu Ikastolari laguntza jasotzearen gaineko idatzia-ri, 16 EB-Aralarren zinegotzi aldaketari (8na blogean eta albistean), 6 alkateak Hitzan kaleratutako artikulua... ez da gutxi, halajaina.

Era berean, nabarmendu nahi genuke orain artean jasotako iritzietan, orokorrean, mantendutako edukazioa. Salbuespenak salbuespen, aurrerantzean ere horrela jarrai dezazuen nahi genuke: zuen iritzia-ri asmo onez eta inorekiko irainik gabe plazaratzen. Denona baita karkara.com, denontzat egina. Eskerrik asko.



## INESEK EAE-ANVREN BLOGEAN IDATZIA

**Eta zer da ba Udalak ikastolari zor diona? Oraindik gehiago eman behar dio udalak ikastolari? Nahikoa eta gehiegi jasotzen du dagoeneko. Pribatuaren aukera egin zutenean garbi euki behar zuten gastu batzuk beraiek pagatu beharko zituztela. Dena administrazioak pagatzea nahi bazuten, publiko bihurtzea zeukaten.**

## BAPATEKOK EAE-ANVREN BLOGEAN IDATZIA

**Politikari guztiak berdina zarete. Berdin da besteek zer egin edo dioten, beti kritikatu, badaezpada ere. Autokritika inongo momentuan ez dezute eginen, eta besteenei denbora guztian punta ateratzen. Zuen kritikek indarra galtzen dute jokabide honekin. Oraindik ikusteko nago alderdiren bat beste batek egiten duena ondo dagoela esaten. Nahiko itxaropentsu nintzen udal berriarekin, baina denbora gutxian ilusioa galdu arazi didazue.**

## AMAIURKO ZALDUNAK EB-ARALARREN BLOGEAN IDATZIA

**Bai, badirudi Txillardegik e ez zuela denboraik Aralarren egoteko, Aralar eta Pancorboren fusio misterioitsuak (%98 aralar-IU adostasuna, Patxi zabaleta dixit), errealitatera itzuli du. Herri baten ordezkari izateak seriotasuna, errespetua eta proiektu politiko sendoa behar du, orainarte zuek ez duzuen erakutsi. Jarraitu diskurtso mary flower hoiekin ta bukatukoezue EE bezala.**

## JOMEK EAJ-PNVREN BLOGEAN IDATZIA

**Mila kontu edukiko nituzke esateko, aurpegiratzeko... baina ez du merezi. Irakurriz gero parre egingo duzue eta betiko moduan jarraitu aurrera... alkateaz gain, dituzuen zinegotziak egokienak, esperientziadunak... demonstratu dezatela! zeren orain arte... gezurra, gezurra eta gezurraren apologia besterik ez duzue, ez egin, ezta esan ere. Portzierto, Hitzako Redondoren iritzi artikulua lotsagarria. benetan, penagarria bada ere penarik ez dit eman: lastima bai ordea!**

## NIRE HONETAN

## Buruko minak

**I**nterbentzioa egin beharko didate buruan, erremediorik gabe. Saiatu, saiatu egin naiz, baina alferrik da! Buruko kableak erreta ditut.

Dena hil honetan garatu da. Orioko kultur etxe atzean jarri den irudia ikusita konturatu naiz burua zeharo nahastuta dudala: gizonak balea arrantzatzen, gizonak erriok arrantzan, eta emakumeok gizonen zain, besterik ez dugu egin-eta azken 500 urteetan! Paf! Fusible bat erre egin zait.

Hobe dut etxera joan eta, ezer egin gabe (jakina!) geldi egon lasaitu bitartean. Eusko Gudari kalera joan eta begira zer dagoen: auto bat zebra gainean aparkatuta. Hostia! Umeei eta agureei beti esan diet ziurtasun gehiagoz zeharkatuko dutela zebra gainean. Aaa! Beste fusible bat. Paff!

Etxean lanari ekin (bai lan egiten dugu emakumeok) eta... inpresorak tinta behar du. Jope! Dendara joan eta tinta kaxa bat edo inpresora berri bat nahiago dudana galdetu didate. Nolatan, inpresora bat? Ba, bai, prezio berdinean daude-eta! Paf! Paf! Eta ber-paff!

Intenbide bakarra, 3 fusible berri erostea. Edo burua osoa aldatzea merkeago aterako al zait? PAT COWIE



## MOILA BAZTERRETIK

# Bixigua, endogamia ala Perurena?



GARBIÑE MANTEROLA

**K**arkarako iluminatu hauek gauza zuzenik ezin egin. *Moila bazterretik!* Nire beste hiru kideek nondik idatzi ote dituzte sail honetan kaleratutako hitzak? Nik egin nuen saiakera bat, espedizio txiki bat moila baz-

tererraino, baina papera eta lapitza ez zen nahikoa izan errioko arratoiak uxatzeko eta korrika-apustu batean egin behar izan nuen buelta etxera!

Izan ere, gai mamitsua izan bada moilarena, behin eta berriz galdetu diot nire buruari: benetan izorraturikal zegoen edo azpiko zimenduak baino ustelagoko arrazoiak izan ditu herritik irteteko zailtasunak eman dizkigun obra santuak?

Zenbat aldiz topatu ote dut hilabete guzti hauetan herrira sartu eta atera ezinik dabilen kanpotarra? Ez ote da izan katramila guzti hau armiarma sarean sartutako guzti horiek beraien jantokietara bideratzeko Xixarioren eta Jose Mariren burutazio bat? Ala herriko txutxumu-

txuzaleek, azkenaldian sortutako bikoteetan kanpotar kontaminazio gehiegi ikusirik, udalari *endogamiaren aldeko aldarrikapena* aurkeztu eta oriotar esentzia bermatzeko aukera bakartzat jo al dute? Herri kirolak bultzatzeko asmoz gure kirol teknikari maiteak harri biribilak jartzea proposatu al du errio bazterrean? Zenbat sasi-harrijasotzaile ikusiko ote ditugu sanikolasetan?

Agian arrazoi ezkutu bakarra nire aurreko idatzia izango da, KARKARAN azaltzearekin bat itxi baitzikiguten herriko atek. Nire bihotza bi herrien artean zatituta dagoela adierazi izanakez dio Udalari grazia handiegirik egin, nonbait. Hilabete luzez Garbiñe herrian *bahituta* izatea baino ideia deskalabratu eta

**Herri kirolak bultzatzeko asmoz gure kirol teknikari maiteak harri biribilak jartzea proposatu al du errio bazterrean? Zenbat sasi-harrijasotzaile ikusiko ote ditugu sanikolasetan?**

politagorik ez du aurkitu neskatxa arrastoan sartzeko, guztiz *oriotartzeko*. Lortuko ote zuten? Nik badaezpada ere, berriro horrelako aldrebeskeriarik gerta ez dadin modan dagoen epilogoarekin emango diot idatziari bukaera... ta aupa Orio.

Sukalde eta bainuen erreformak

**XANTI MUJIKA**

**Igeltseritza**

699 46 76 21  
943 13 10 37

**KOLON TXIKI**

Herriko Enparantza, 4  
ORIO  
Tel. 943 83 00 44

*Lizaso*  
*Utziak*

Enpresa enpresa...  
4100 Lertxundi, 17000 943 13 11 11

**ELKAR**

pintura eta paperatze lanak zoru leunketa

Abendako Industrialdia  
940-88 09 45 / 819 60 23 35  
ZARAUTZ

**ITZALA**

kaltetan jokatzen ari zarenak

tel. 943 83 12 59

**Peikeria eta estetika mirak**

TS

- Tintu argiztatuak eta koloreak naturalak
- Des-tintatzeak tinte iraultzaile
- Arizatez erabiltzen
- Pedicura
- Depilazioa

Sax Alkolar, 2 Tel: 943 85 51 70

**Automóviles ZARAUTZ**

CITROËN ZERBITZU OFIZIALA

bigailu berrak eta il berrak lortu

ZARAUTZ. Tel: 943 13 13 50

**OLIDEN**

harategia

**ORIO**

Eusko Gudari, 2  
Tfnos: 943 83 10 86

845 zerebitzen lekuak 845 192 04

**ARGIDENTAL HORTZ KLINIKA**

Jl Soulier doktorea

Oklentologia      Prebentzio  
Periodontia      Errehabilitazio  
Endodontia      Hertz estetikak  
Implantologia      Protesiak

Maria Etxetuiki 1, Zarautz  
943 13 82 78  
clinica dental soulier orio@nongocis.com

**SOLOZABAL**

autoeskola

Eusko Gudari, 30-1. ezk  
telef: 943 83 08 12

**URANGA**

burdindegia

Opari, menaje eta errentak

Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 3

## KRITIKA



Sekulako kritika onak jaso zituen iaz argitara eman zuten Amateur universes lanak.

KARKARA

## Abenduaren 7rako plan ezinhobea: Athom Rumba

**E**z da nolanhiko taldea abenduaren 7an herriko plazan ikusiko duguna. Izan ere, egungo euskal musikaren panoraman dagoen proposamenik interesgarrienetako bat da askoren ustez, Athom Rumba: ezohikoa eta indartsua.

1995ean sortu zen taldea eta iaz kaleratu zuten beren azkenengo lana, *Amateur universes* izenekoa. Esan beharra dago, disko honek sekulako kritika onak jaso zituela. El Pais egunkari espainiarrean, esaterako, *Amateur universes* erritmo-

aren apologia hutsa, dantza pistarako arrisku hutsa dela idatzi zuen Igor Cubillo musika kritikoak. Lan berbera, hilabeteko disko one-na izendatu zuten Ruta 66 aldizkari ezaguneko zenbaki batean. Aipatutako kritikak, gainera, ez dira bizkaitar hauen disko bakarrera dute jasotako laudorioak ez direla kasualitatez, kantu edo diska on bat sortu izanagatik bakarrik eginak. Sobera luza naiteke besteek esanak jasotzen, Backbone Ritmo lanaz, Dirt Shots izenekoaz...

baina ez dator kontura eta honezkero aspertu ere egingo zintudan halako kontuekin. Beraz, hobe bukatzen joatea. Aipamen bakarra, orain 5 urte Madrilen izan ziren John Spencer Blues Explosionekin, eskenatiketako beste basapiztia bat. *Dedio! basapiztia esan dut? nola geratu den e!*

Tira, gomendioa egin dizut, irakurle. Hotz egin ohi du sanikolasetan, gehiago plazan. Baina izan lasai, Athom Rumba sua baitira eskenatoki gainean.

PATXI URANGA

## IKASLEAK IDAZLE



IOKIN ELIZALDE |

6. MAILA

## Eskertzekoa

**A**zken hilabete hauetan eskolatik etorri eta kalera noanean, KARKARAN banatzaileak ikusten ditut kalean aldizkaria etxe guztietako buzoietan sartzen. Nik, asko eskertzen diet egiten duten lana, baina dirudienez beste batzuek ez dute hori ulertzen. Aurreko batean KARKARAN bertan irakurri nuen, aldizkariak eskerrak eman nahi zizkiela banatzaileei egiten duten lanagatik. Aldizkarian aipatu zuten aurreko egun batean nahastu egin zirela eta jendeak kalean ikusten zituenean modu txarrez esaten ziela beren etxeetan ez dutela aldizkaria utzi. Niri ez zait gustatzen gauza bat gaizki egiten dudanean jendea errepikatzen egotea gaizki egin dudala. Inor ez da perfektua, denok nahasten gara eta borondate onez egindako gauzak eskertu egin behar dira.

tel/fax: 943 89 00 69  
Ertza kalea, 4. 20.000 ZARAUZ

ITURGINTZA, BERGINTZA  
GASA, BAINU ERAKUSKETA

ASADOR  
XIXARIO

Lasako Gaurerako Kalea, 2  
Tel. 943 300 819 - 0819

ZUMINTZA  
Merkatu  
produrren  
maileketa  
deputa zio berrak eta...

SOLARIUM

tel: 943 83 17 56

ODITZ

Liburu zahaleko irudak  
oponatu erakusketan

tel. 945 33 00 89

## HANDIK ETA HEMENDIK

“

“Benito Lertxundirekin amets bat nuen bete beharra. 1967an ikusi nuen Ez dok hamairurekin eta sekulako *flaxa* izan zen ezagutzen nuen abeslari eskoziar baten euskarazko bertsioa egiten ikustea. Niri Benitok eman zidan euskaraz kantatzeko gogoia.”

## ANJE DUHALDE

Abeslaria  
Euskadi Irratia  
2007/11/27

“Artikulua bere osotasunean saritu dutela uste dugu. Esan digutenez, txukuna, irudiekin eta oso didaktikoa delako eman digute saria.”

RIKARDO UZKUDUN  
ETA SANTI SESMA

irakasleak  
Txintxarri aldizkaria  
2007/11/19

## OSPAKIZUNA



## A ze nolako pieza!

A ze nolako pieza ageri den Mikel Kaperotxipi *Kaperok* helarazi digun irudian. Argazkia Galiziako uretan egina dago, iraila bukaeran. Egun horretan halako 8 moja harrapatu zituzten Montserrat ontziko marinelek. Goikoak 135 kilo pisatu zituen eta lau lagunen artean lortu zuten baporera igotzea. Portura itzulita, lonjan, kiloko 10 euro inguru ordaindu zizkien Getariako erosle batek. Esfortzua latza egin zutela esan digu *Kaperok*, baina merezi izan zuela, dudarik gabe.

## ZORIOTXARRAK!

Jolas parkeak zikin-zikin uzten dituztenei

Gozamenerako eta zoramenerako maiteak dituzte haurrek jolas parkeak. Baina, badirudi, besteren batzuk ez dituztela hain gogoko. Pipa azalak, gusanito poltsak, txokolatzeko palmera zatiak... aurkitzen dira lurrean, eserlekuetan, kolunpio eta txirristetan...

Parkeak zaindu egin behar dira, bertan egoten diren ume, gazte eta guraso horiek bezala, ondorengoek ere non jolastua izan dezaten.

Zoritxarrez, ez da lehen aldia parkearen egoera txoko honetatik salatzen duguna, ea, behintzat, azkenekoa den.

**LUXARBE**  
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Telefono: 943 83 59 00

**HI**

HERRI IKASTOLA

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8  
TEL. 943 83 47 04  
FAX: 943 13 09 38

**kutxa**

ardoak, urdaikiak, gaztak, kontserbak, janari prestatuak

etxeraino eramaten ditugu

**KUTXA**

943 83 09 84 aita lertxundi, 36 ORIO

ORAIN DELA 25 URTE

# 200.000 kristau izan ziren Loiolan *Aita Santua* ikusten

**D**uela 25 urteko azaroaren 6a egun garrantzitsua izan zen euskal kristautentzat. Izan ere, *Aita Santuak* bi geldialdi egin zituen Euskal Herrian.

Helikopteroz iritsi zen Joan Pablo II. Loiolako basilikara. Segurtasun neurriak medio, basilikaren atzealdean hartu zuen lurra, espero baino ordu bete beranduago. Atzerapen horrek bertaratutako 200.000 bat pertsonen artean zenbait liskar arin sortu zituen, ezer larrik ez.

Lehenengo aldiz, Euskal Herriak hizkuntza propioa bazuela aitortuz, *Aita Santuak* euskaraz egin zituen lehen hitzak eta baita agurra ere: *herriko kristau maiteok: Pakea zuei eta zoriona opaz hasi zen eta guztioi nire agurrik berona. Pakea zuei.* esanda amaitu zuen.

Loiolako elizkizunetik Jabiergo gaztelura abiatu zen helikopteroz. Ia 100.000 lagun zituen han zain.

## HILABETE TRISTEA HERRIAN

Azaroaren 6an, goizaldera, arrantzale batzuk Ana M. Tuda Santos oriotarraren gorpua aurkitu zuten Oria ibaian.

Azaroaren 20an, Silberio Uranga Izeta, Orioko Udaleko HBko zinegotzia, desagertutzat eman zen, *Kabratxo* itsasontzia Mutrikuko arroketan hondoa jota aurkitu ondoren.



**Denboraldiko lehen atunak enkantean jarri ziren. 50 tonelada besterik ez zituzten harrapatu euskal ontziek**

**Erreala Europako Koparako final laurdenetarako sailkatu zen. Nazioartean ordura arteko emaitzik onena zen**

Uranga aurreko egunean jarri zituen nekora saskiak jasotzera joan zen, bera bakar-bakarrak.

Mutriku eta Saturraran artean egunetan egindako miaketetan, desagertuaren kamixeta, jertsea eta bota aurkitu zituen Gurutze Gorriak.

## KIROL PROBAK

Azaroaren 5ean Aian ididemak izan ziren. Parte hartzaileen artean, Lopetegi eta Izeta, Mañarinzelai eta Errekondo aiarrak zeuden. 2.025 kiloko *Arriberria* harria erabili zuten lanerako.

Azaroaren 7an Abadiñoko probalekuan jokatu zen II. Antzua saria. 4 lehiakide izan ziren pisu libreko modalitatean: Antonio Ayo, Elorduy anaiak, Juan Astorkiza eta Olliden oriotarra.

3.000 kiloko *Larrekoetxe* harriarekin egin zituzten egun hartako lanak, bakoitzak hiru gurdizain lagun zituela.

Juan Jose Bilbao eta Jesus M. Otazuaren laguntzaz, Astorkiza izan zen garaile. 31 iltze eta 4,65 metro egin zituzten. Elorduy anaiak izan ziren bigarren. 30 iltze, 3,20 metro egin zituzten Ormaza, Agustin eta Ontzia gurdizainekin. Antonio Ayo izan zen hirugarren eta Olliden laugarren.

Azaroaren 14an izan zen 18. Behobia-Donostia lasterketan ordura arteko marka guztiak hautsi ziren.

10:30ean irten ziren 1.300 korrikalariak Behobiako irtereratik. Guztien artean Pello Garin zizurkildarra izan zen azkarrena, 1:02:47ko denbora behar izan zuen Bulebarrereko helmugara iristeko.

Emakumezkoetan erlasterketako errekor berria jarri zuen Carol Rossetek (1:19:00).

## JAIOTAKOAK

- Ez da jaiotzarik izan.


## EZKONDUTAKOAK

- Ez da ezkontzarik egon.

## HILDAKOAK

- Maria Lertxundi Gurrutxaga, Orion, azaroaren 20an. 77 urte.
- Teodoro Cuenca Vazquez, Orion, azaroaren 17an. 63 urte.
- Maria Otegi Solaberrieta, Orion azaroaren 13an. 86 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:  
943 83 15 27





MIREN ZINKUNEGI | ZERBITZARIA

# “Festetan gehien falta dena errespetua da, dudarik gabe”

**Sanikolasen aitzakian hurbildu gara Kalakari tabernara. Nabaria da festa usaina, prestaketekin buru-belarri baitabilta.**

**Zer aldaketa eragiten dute herriko jaiek tabernan?**

Barruko itxura erabat aldatzen da. Barraz kanpoko guztia gorde eta almazena topetaraino betetzen dugu. Eskura dagoen edozer ere kendu behar izaten da: telebistak, mahaiak, su-itxalgailuak... Bereziki egun horietarako ekarritako materialak ere, plastikozko basoak, esaterako, bere tokia behar behar izaten du. Hilabete osoa buruari bueltak emanez pasatzen dugu festetako lau-bost eguni aurre egiteko.

Tratuari dagokionez, hontzagoa izaten da jende asko dabilen egunetan. Tragoa eskatzen dizute, ematen diezu eta kito, hor konpon. Ez daukazu denborarik bezeroekin hizketan, solasean jarduteko, jende asko dago eta azkar zerbitzatu behar izaten da. Eguneroko tratua, berriz, zuzenagoa da.

**Berdinak al dira lehengo eta oraingo jaiak?**

Inola ere ez, festa giroa aldatzen ari da. Azken 10 urtetan jai giroaz gozatzerako etorritako jende kopurua nabarmen jaitsi da. Hala ere, egoera hau ez da egun jakin horietan bakarrik antzematzen, eguneroko bizitzan ere gauza bera gertatzen baita. Dirua ez zaigu denerako iristen, eta ez diogu ezerri uko egin nahi: autoa, esku telefonoa... dena behar dugu.

Bestalde, edari ezberdinak eskatzen dira orain. Kalimotxo eta garagardoa ziren, dudarik gabe, duela urte gutxi arte edarien artean errege.



Sanikolasetarako prestaketekin buru-belarri dabil Miren.

KARKARA

**Kontraesana den arren, jende askok, gazteak batez ere, konbinatua edaten du, horrek patrikan sortzen duen zuloarekin**

Garagardoari eusten zaion arren, kalimotxo oso baxu dabil azkenaldian. Kontraesana da baina, jende askok, gazteak batez ere, konbinatua edaten du. Kontraesana diot, ez baitut ulertzen nola pasa dezaketen gau guztia koktelak edaten, horrek patri-

**Aste arrunt batean baino berrogei aldiz gehiago zerbitzatzen dugu festa egunetan**

kan sortzen duen zuloarekin.

Lehen ez bezala, jendea beranduago ateratzen da etxetik. Afal aurretik poteo luzea egiten da eta, azkenean, berandu ateratzen da etxetik. Asteburu arrunt batean ere 01:00etatik aurrera egiten dugu guk lan. Kafea hartzera

11:00etan ateratzen denak lau katu aurkituko ditu.

**Zenbat litro edari eskatzen duzue festetarako?**

Guztira ez dakit zenbat. Baina, San Miguel garagardo botela da gehien edaten eta eskatzen dena, garai bateko Kelerra bezala. Iaz, esaterako, 160 kaxa eskatu genituen. Atera kontuak: kaxa bakoitzean 30 botila, 0,20 litro botilako, beraz, 960 litro guztira. Buelta horretan ibiltzen gara beti. Aste arrunt batean baino 40 aldiz gehiago zerbitzatzen dugu festa egunetan.

**Eta zenbat zabor biltzen da egun horietan?**

Ikaragarri, 4-5 poltsa handi egunean. 5.000 bat plastikozko baso erabiltzen dira eta horiek guztiak zakarrontzian bukatzen dute. Lurrean ere edozer gauza bilatzen dugu: gau guztian bueltaka dabilen jertsea, kristalezko basoak...

**Zerbitzariaren ikuspuntutik zer falta zaie Orioko festei?**

Hasteko, komunak gutxi daude eta ilara ikaragarriak sortzen dira. Guk ez dugu komunik ixten, baina ulertuko nuke zerbitzariarentzako komunetako bat eta bakarra ixtea. Aldiz, zerbitzu hori ukatzea oso itsusia iruditzen zait.

Hala ere, festetan gehien falta dena errespetua da. Harrotu egiten da jendea. Tabernaren itxura aldatzea ez litzateke beharrezkoa izango jendea astegun arruntetan bezala etorriko balitz.

**Aurtengorako prestatu al zarete?**

Hortan ari gara. Lanerako jendea lotua daukagu. Kalimotxeroa ere jarri dugu jada, azken momentuan jarrita beti izaten baitute arazoren bat.



## Oriotarrak aintzinako postaletan

**P**ostal baten aurreko aldea duzue goian duzuen irudia. Espainiako *Union postale universal* zigilua darama eta norbaitek ezagutu ez badu, Oriokoa da bertan agertzen den herria.

Argazki zaharra dela agerian dago eta ez dugu data zehazterik lortu. Lekua bai, ordea: Aritzaga kalean, gaur egungo Bodegon Joxemari jatetxearen goian dagoen etxebizitzarako

eskailerak dira hor ikus daitezkeenak.

Hamaika erabilpen izan ditu historian lokal horrek. Garai batean, Orioko kofradia zegoen, nonbait, bertan eta noiz edo noiz, musikariek ere lokal hori erabiltzen omen zuten entsaioak egiteko.

Irudian agertzen diren lau lagunak ondorengoak dituzue, ezkerretik hasita:

Fernando Larrañaga Santxo, Juana Etxeberria

Pontesta, Margarita Etxeberria Pontesta eta Cristina San Sebastian Izagirre.

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

# KARKARA

ARGAZKIA ETA INFORMAZIOA:  
BIXENTE LARRAÑAGA XARPAS

**PERTSIANAK**  
AKO MAZ  
Aluminio, PVC  
Venezianak  
Motorrak...  
Tel: 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

**LORETXU JATETXEA**  
Eusko Guezi, 18 Tel: 943 83 00 07

**MA\*NA** lokutorioa  
Enklaia enparantza, 1  
20810 ORTIO (Gipuzkoa)  
Tel./Fax: 943 13 50 82  
locu-mana@euskalnet.net

**FUTBOLA**

- Abenduaren 1ean, erregionalean: Orio-Roteta. Jubenilean, Kopa eta jaitsiera: Beti gazte-Orio. Kadeteen: Zarautz-Orio. Infantilean: Martutene-Orio. Nesken Kopa: Orio-Lazkao. Kadete neskek, txapeldunen fasea: Intxaurdi-Orio.
- Abenduaren 8an, erregionalean: Orio-Oiartzun. Jubenilean, Kopa eta jaitsiera: Mondragon-Orio. Kadeteen: Orio-Aurrera Ondarroa.
- Abenduaren 15ean, erregionalean: Elgoibar-Orio. Jubenilean, Kopa eta jaitsiera: Orio-Santo Tomas Lizeoa. Kadeteen: Martutene-Orio. Infantilean: Orio-Internacional M.B. Nesken Kopa: Amara Berri-Orio. Kadete neskek, txapeldunen fasea: Orio-Beasain.

**ARETO FUTBOLA**

- Abenduaren 1ean, 1. Nazional kategorian: Orioko tabernak-Laskorain. Karela kiroldegian, 18:00etan.
- Abenduaren 8an, 1. Nazional kategorian: Sasikoa-Orioko tabernak.
- Abenduaren 15ean, 1. Nazional kategorian: Orioko tabernak-Zierbana. Karela kiroldegian.

**PLAIEROAK**

- Abenduaren 1ean, Xixario-Rovelli. Zarauzko

**Gaztain Eguna Aian**

Gaztain Eguna ospatuko dute Aian abenduaren 2an. Eriz Magoaren emanaldia antolatu da 3 eta 12 bitarteko haurrentzako euskaraz 17:00etan kultur etxean. Ondoren, gaztain jana, sagardoa, freskagarriz eta pastez lagunduta eskainiko du Lardizabal Guraso Elkarte antolatzaileak. Bestalde, opariz betetako otarra zozketatzeko zenbakiak salgai dituzte batzordekideek.

hondartzan, 15:00etan.

- Abenduaren 15ean, Kiribil/The Balde-Xixario. Zarauzko hondartzan, 13:00etan.

**SILO-BOLAK**

- Abenduaren 11n egingo dira silo-bolak. Zerbitzuaren inguruko informazioa jasotzeko Urkomera deitu: 943 81 65 00; edo bertako

arduradunarekin hitz egin: Antonio, 629 81 18 86.

**BATZARRA**

- Abenduaren 19an ezker abertzalearen herri batzarra. 19:00etan kultur etxean.

**GURASO TOPAKETAK**

- Abenduaren 3an, Askagintzaren eskutik,

guraso topaketak. Gaia: *begiak ixten ez dituzten gurasoentzat: nola jakin nire seme-alaba kontsumitzen dabilen edo ez*. 19:00etan kultur etxean.

**PODOLOGOA**

- Aian, abenduaren 15ean. Ordua hartzeko Udaletxean eman behar da izena. Tf: 943 13 11 44.

**IPUIN KONTALARIA**

- Abenduaren 18an, Pello Añorga ipuin kontalaria Orioko kultur etxean. 18:00etan liburutegian.

**KONTZERTUA**

- Abenduaren 18an eta 20an, Danbolin musika eskolaren Gabonetako kontzertua. 18:00etan kultur etxean.

**ZINE FORUMA**

- Azaroaren 30ean, OZK taldearen eskutik, James Foley zuzendariaren *Glengarry Glen Rose* filma. 22:00etan kultur etxean.
- Abenduaren 14an, OZK taldeak antolatuta, Terry Gilliam zuzendariaren *Los héroes del tiempo* filma. 22:00etan kultur etxean.

**BINGO SAIOA**

- Abenduaren 12an eta 19an, Zaharren Babeslekuak antolatuta, bingo saioak. 16:30ean kultur etxean.

**ITSASOA**

ABENDUA	Itsasgora	Itsabehera	Ilargia
30	08:19 eta 20:48	01:51 eta 14:42	☾
01	09:29 eta 22:06	02:55 eta 15:45	☾
02	10:46 eta 23:30	04:06 eta 16:58	☾
03	12:02 eta	05:23 eta 18:15	☾
04	00:41 eta 13:07	06:35 eta 19:14	☾
05	01:33 eta 13:56	07:31 eta 19:57	☾
06	02:14 eta 14:37	08:14 eta 20:33	☾
07	02:48 eta 15:13	08:52 eta 21:06	☾
08	03:21 eta 15:46	09:28 eta 21:38	☾
09	03:52 eta 16:18	10:03 eta 22:09	☾
10	04:24 eta 16:49	10:38 eta 22:42	☾
11	04:57 eta 17:20	11:13 eta 23:15	☾
12	05:31 eta 17:52	11:49 eta 23:50	☾
13	06:08 eta 18:27	12:27 eta	☾
14	06:49 eta 19:08	00:30 eta 13:09	☾

**ZAINZAKO BOTIKAK****ABENDUA**

- 30ean, Mutiozabal.
- 01 eta 02an, Zulaika.
- 03an, Mutiozabal.
- 04an, Iriarte.
- 05an, Olaizola.
- 06an, Zulaika.
- 07an, Olaizola.
- 08 eta 09an, Iriarte.
- 10etik 16ra, Lasa.
- 17an, Olaizola.
- 18an, Mutiozabal.
- 19an, Zulaika.
- 20an, G.Arriñano.
- 21ean, Azaldegia.

**Azaldegia:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz

**Barrenetxea:** Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz

**Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz

**Olaizola:** S. Frantzisko kalea, 16. 943 13 38 14 Zarautz

**Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio

**G.Arriñano:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz

**Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea 943 13 29 83 Zarautz

**Zulaika:** Bizkaia kalea, 41 943 13 39 94 Zarautz

